AKTEA

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

(2018-10-18/35)

Bilkurea:	EZ OHIKOA
Deialdia	1. deialdia
Datea:	2018-10-18 (Osteguna)
Lekua:	GIZARTE ETA KULTURA ETXEKO BATZAR GELEA
Hasiera-ordua:	08:10
Amaiera-ordua:	08:30
Lehendakaria:	BIDEGUREN GABANTXO IDURRE
Batzordekideak:	IBARROLAZA MUNITIZ BENITO AGIRRE SANTAMARIA JUAN CARLOS ASTUI ZARRAGA AINGERU
Bertaratu ez direnak:	ORMAETXEA LEGARRETA IRUNE BILBAO URIARTE NAIA ELORZA ELORTEGUI MARIA AMAIA
Idazkaria:	URIARTE LEJARRAGA JURDANA

Aztergaiak

1. - Aurreko akta irakurri eta onestea.

2. -Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.

3. - Musika Eskolako pianoen afinazioa egiteko kontratua esleitzea.

4. -*'Gu ere Bertsotan/Mundu bat Bertso'* egitasmoa kudeatzeko zerbitzu kontratuaren baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea.

5. - 2018. urteko San Andres auzoko jaiak ospatzeko diru-laguntza eskaria onartzea.

6. -2018 urteko Bermeoko kultur taldeen jarduera arruntak finantzatzeko dirulaguntzak onartzea.

7. -2018 urteko Bermeoko kultur taldeen jarduera bereziak finantzatzeko dirulaguntzak onartzea.

8. - Alkatetza dekretuen barri emotea

9. - Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoala ikusita, bilkura hasi dau eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dagozan gaiei heldu deutsoe. Emoitza honakoa izan da:

1. - AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA.

2018ko urriaren 8ko aktea irakurrita, bertaratutako batzordekideek aho batez onartzea erabagi dabe.

2. - BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek adierazi dute gai zerrendako puntuetan ez dutela interes pertsonalik edo familiakorik.

3. - MUSIKA ESKOLAKO PIANOEN AFINAZIOA EGITEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Musika Eskolako pianoen afinazioa egiteko kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Ikasturte berria hasita dago eta urtero bezala zentroko 11 piano afinatu behar dira.

Bigarrena: 2018ko irailaren 26an Musika Eskolako zuzendariak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxekipena dauka (RC 2018/529)

Bigarrena: Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29.8, 63.4 eta 118 artikuluak kontutan izanda.

Hirugarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2018ko martxoaren 5eko 244.zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak dauka eskuordetuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 1.091,42€-ko gastua baimentzea Musika Eskolako pianoen afinazioa egiteko eta, indarreango udal aurrekontuaren 00400-32620-214.01.00 partida ekonomikoan zorduntzea.

BIGARRENA: Musika Eskolako pianoen afinazioa egiteko kontratu txikia, B-48546865-IFK zenbakidun Musical Deusto S.L.ri esleitzea 1091,42 €-tan (BEZ barne), 2018ko irailaren 17ko aurrekontuagaz bat etorriz.

HIRUGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

LAUGARRENA: Interesdunari eta Ekonomia Sailari erabagi hau jakinarazotea.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

4. - *'GU ERE BERTSOTAN/MUNDU BAT BERTSO'* EGITASMOA KUDEATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.

Xedea

'Gu ere Bertsotan/Mundu bat Bertso' egitasmoa kudeatzeko zerbitzu kontratuaren baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: *Gu ere Bertsotan/Mundu bat Bertso* programa diseinatzeko, antolatzeko eta abian jartzeko zerbitzuaren kontratazinoa bideratu behar da. Kontratuak xede bakar eta osoa dauka eta ez dago loteetan banatuta. Eta xedearen arabera, zerbitzu administrazio-kontratua da.

Bigarrena: Aukeratutako prozedurea publizitate bako prozedura negoziatua da, Bermeoko ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko *Gu ere Bertsotan* programan horretarako berariaz sortutako materiala, *Mundu bat bertso* izenekoa, erabiltzen dalako eta material hori Bizkaian erabiltzeko esklusibitatea Bertsozale Elkarteak daukalako. Beraz, zerbitzua enpresa bakarrak emon leike, Bertsozale Elkarteak hain zuzen. Hori horrela, Bertsozale Elkarteari bialduko jako parte hartzeko gonbitea.

Kontratu honen balio estimatua, luzapenak eta kontratua aldatzeko aurreikusitako aukera guztiak barne, 54.819,87 eurokoa da, BEZa salbuetsita.

Kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 54.819,87 eurokoa da, BEZa salbuetsita. Eta hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua, kontratu honi lotuta.

Hirugarrena: 2018ko abuztuaren 28an Gazteria teknikariak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Kontsignazino nahikoa dago gastu honetarako. RC 2018/449.

Bigarrena: Kontratu administratibo baten aurrean gagoz, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 25. artikuluaren arabera.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 2. Xedapen gehigarriaren araberako Toki Entitateetako Kontrataziorako Arau espezifikoak aplikatuko dira.

Laugarrena: Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 168.a)2. artikuluan xedatuta dago publizitate bako prozedura negoziatua erabili daitekela zerbitzua enpresa zehatz bateri edo batzueri bakarrik esleitu ahal jakenean, esklusibitate eskubideak dagozalako, jabetza intelektuala barne.

Bosgarrena: 2018ko uztailaren 24an, udal idazkariak aldeko txostena igorri dau.

Seigarrena: 2018ko martxoaren 5eko 244 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarraren eta Ekonomiako Zinegotzi Delegatuaren artean honela banandu dira eskumenak gastuen faseak onartzeko:

Tokiko Gobernu Batzarrak: AD faseak (600,00 €-tik gorako gastuetan).

Zinegotzi Delegatuek: AD faseak (600,00 €-ra arteko gastuetan).

Kontu Batzordeko Zinegotzi Delegatua: OP faseak (edozein kopurutan).

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 54.819,87 euroko gastua baimentzea zerbitzu kontratua esleitzeko eta, indarreango udal aurrekontuaren 01200-33421-2270408 partidan zorduntzea.

BIGARRENA: Baldintza Plegu Tekniko Partikularrak, Administratibo Partikularrak eta horreen eranskinak onartzea.

HIRUGARRENA: Deialdia zabaltzea, kontratua bete ahal dauan enpreseari jagokon gonbidapena bialduz.

LAUGARRENA: Gazteria Sailari erabagi hau jakinarazotea.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

5. - 2018. URTEKO SAN ANDRES AUZOKO JAIAK OSPATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKARIA ONARTZEA.

Xedea

2018. urteko San Andres auzoko jaiak ospatzeko diru-laguntza eskaria onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2018ko irailaren 25ean, San Andres auzoko alkatea dan Jon Patxi Gutierrez Trejo jaunak, auzo horretako jaiak dirala ta, ondoren aitatzen diran ekintzak antolatzeko 7.000 euroko diru-laguntza eskatu dau:

*Azaroak 30, barikua: SAN ANDRES EGUNA

Meza, Mus txapelketa, Karaoke

* Abenduak 1, zapatua

Herri kirolak, umeen jolasak, herri bazkaria, magia ekitaldia, umeen jolasak eta erromeria

* Abenduak 2, domeka

Mendi martxa, pintxo pote, txakur eta animalien erakusketa, briska txapelketa, tortilla txapelketa, umeen jolasak

Bigarrena: 2018ko ekainaren 25ean, Tokiko gobernu Batzarrak, "Bermeoko auzoetako jaiak finantzatzeko 2018 urteko dirulaguntzen oinarri espezifikoak" onartu dauz.

Hirugarrena: 2018ko irailaren 26an Lugintza Batzordeak egindako batzarrean, ondoren aipatzen dan balorazioa emon da:

BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:

* Jaiak: 15 urtetik gora…… 30 puntu

* Herritarren partaidetza …… 20 puntu

* Euskeraren erabilera (idatziz eta ahoz)……. 20 puntu.

* Euskal kulturaren ekitaldiak…… 10 puntu

* Programaren interesa eta aniztasuna……. 10 puntu

* Danetara…… 90 puntu

Laugarrena: Idazkaritzako teknikariak txosten juridikoa egin dau 2018ko urriaren 8an.

Bosgarrena: Kontuhartzaileak ikuskatze mugatuaren txostena egin dau 2018ko urriaren 9an.

Seigarrena: 2018ko urriaren 11n Kulturako teknikariak erabagi proposamena egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Kontuan izanda oinarri espezifikoak eta egindako batzarrean jasotako 90 puntuko balorazinoa, aurrekontuaren %100 arte izan behar da emondako dirulaguntza, gehiengo kopurua kontuan izanda. Kasu honetan, gehiengoa, 5.000 €.

Bigarrena: Bermeoko auzoetako jaiak finantzatzeko 2018 urteko diru-laguntzen oinarri espezifikoetan jasotakoaren arabera, eskatzailea auzoko alkatea izan behar dala adierazten da. San Andres auzoko alkatea, Jon Patxi Gutierrez Trejo jauna, eskaria egin dauana da.

Hirugarrena: Gastuak beharrezko atxekipena dauka (RC 2018/380)

Laugarrena: Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra.

Bosgarrena: Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamendua onetsi ebana.

Seigarrena: Bermeoko auzoetako jaiak finantzatzeko 2018 urteko diru-laguntzen oinarri espezifikoak, 2018ko uztailaren 17ko BAOn argitaratuak.

Zazpigarrena: Onartzeko ahalmena alkateari jagoko, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.f) artikuluaren arabera, baina 2018ko martxoaren 5eko 244 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazinoen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: San Andres auzoko jaiak ospatzeko, Jon Patxi Gutierrez Trejo jaunari 5.000,00 euroko dirulaguntzea emotea onartzea eta indarrean dagoen udal aurrekontuaren (luzatua) 00900-33830-4810303 partidan zorduntzea.

BIGARRENA: Dirulaguntzaren ordainketa era honetan egingo da: programa osoa burutu baino lehen %80a (ADO): 4.000,00 € eta ekintza justifikatzen danean %20a: 1.000,00 €

HIRUGARRENA: Euskerearen ordenantzeak xedatzen dauzan kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko baldintzak bete behar dauz diru-laguntzearen jasotzaileak.

LAUGARRENA: Erabagia interesdunari, Kontabilidadeari eta Diruzaintzari jakinarazotea.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkureari erabagiaren barri emotea.

6. - 2018 URTEKO BERMEOKO KULTUR TALDEEN JARDUERA ARRUNTAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZAK ONARTZEA.

Xedea

2018 urteko Bermeoko kultur taldeen jarduera arruntak finantzatzeko dirulaguntzak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkurak, Bermeoko Udaleko 2018-2021 dirulaguntzen plan estrategikoa eta oinarri orokorrak onestea erabagi dau.

Bigarrena: 2018ko ekainaren 25eko Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Bermeoko Udaleko 2018. urteko diru-laguntzak arautzeko Oinarri Bereziak, 2018ko uztailaren 17ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Hirugarrena: 2018ko uztailaren 17tik 27ra, epe barruan, dirulaguntza eskariak aurkeztu dabez 2018 urteko jarduera arruntak antolatu nahi dabezan Bermeoko kultur taldeek, oinarri berezietan aipatzen diran kontzeptuetarako.

Laugarrena: 2018ko abuztuaren 2ko Kultura eta Hezkuntza batzordeak, balorazio batzordea izanik, dirulaguntzen erispideen taula osotu dau, Oinarri Berezietan oinarrituta, honako hau izanik:

- Erroxape emakumeen elkartea: 93 puntu
- Bermeoko Abesbatza: 93 puntu
- Barrueta Arte Elkartea: 100 puntu
- MB2000 Zerbitzu Soziokulturalak: 86 puntu
- Demiku jubiladuen elkartea: 73 puntu
- Txo Sevilla dantza taldea: 64 puntu
- Coro Rociero Maika de Bermeo: 58 puntu
- Buztina Keramika taldea: 43 puntu
- Izaro Abesbatza: 90 puntu

Bosgarrena: Idazkaritzako teknikariak txosten juridikoa egin dau 2018ko urriaren 8an.

Seigarrena: Kontuhartzaileak txostena egin dau 2018ko urriaren 9an.

Zazpigarrena: 2018ko urriaren 2an Kulturako teknikariak erabagi proposamena egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: 2018ko abuztuaren 9ko Kultura eta Hezkuntza batzordeak, balorazio batzordea izanik lortutako puntuak ikusita, Bermeoko kultur taldeek jarduera arruntak finantzatzeko dirulaguntzen baldintza zehatzen fitxetan oinarrituta, dirulaguntza kopuruak proposatu dau.

Bigarrena: Gastuak, beharrezko atxekipena dauka (RC 2018/339)

Hirugarrena: Eskatzaileek, Kultura eta Hezkuntza arloko 2018ko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak ezagutzen eta onartzen dabezala aitortu dabe.

Laugarrena: Eskatzaileek, identifikazino fiskaleko kodea daukie eta egunean dagoz betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan. Eta, abuztuaren 10eko datagaz ez daukie tokiko zerga zorrik.

Bosgarrena: Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra.

Seigarrena: Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamendua onetsi ebana.

Zazpigarrena: Onartzeko ahalmena alkateari jagoko, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.f) artikuluaren arabera, baina 2018ko martxoaren 5eko 244 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazinoen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: aurrekontuko 00400-33410-481.01.05 partida ekonomikoan 23.034,05 € zorduntzea dirulaguntzak zerrendatzen diran eran eta ordainketa honako era honetan egitea: programa osoa burutu baino lehen, %80a, eta ekintza justifikatzen danean %20a.

- **Erroxape emakumeen elkartea: 5.500,00** €

Ordainketea: %80a (ADO): 4.400 € eta %20a (AD): 1.100 €

- **Bermeoko Abesbatza: 4.400,00** €

Ordainketea: %80a (ADO): 3.520,00 € eta %20a (AD): 880,00 €

- **Barrueta arte elkartea: 2.400,00** €

Ordainketea: %80a (ADO): 1.920,00 € eta %20a (AD): 480,00 €

- **MB 2000 Zerbitzu Soziokulturalak elkartea: 700,00** €

Ordainketea: %80a (ADO): 560,00 € eta %20a (AD): 140,00 €

- **Demiku jubiladuen elkartea : 3.640,00** €

Ordainketea: %80a (ADO): 2.912,00 € eta %20a (AD): 728,00 €

- **Txo Sevilla dantza taldea: 3.674,82 €**

Ordainketea: %80a (ADO): 2.939,86 € eta %20a (AD): 734,96 €

- **Coro Rociero Maika de Bermeo**: **1.956,74 €**

Ordainketea: %80a (ADO): 1.565,39 € eta %20a (AD): 391,35 €

- **Buztina Keramika taldea**: **172,50 €**

Ordainketea: %80a (ADO): 138,00 € eta %20a (AD): 34,50 €

- **Izaro Abesbatza: 589,99 €**

Ordainketea: %80a (ADO): 471,99 € eta %20a (AD): 118,00 €

BIGARRENA: Euskerearen ordenantzeak xedatzen dauzan kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko baldintzak bete behar dauz diru-laguntzearen jasotzaileak.

HIRUGARRENA: Erabagia interesdunei, Kontabilidadeari eta Diruzaintzari jakinarazotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkureari erabagiaren barri emotea.

7. -2018 URTEKO BERMEOKO KULTUR TALDEEN JARDUERA BEREZIAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZAK ONARTZEA.

Xedea

2018 urteko Bermeoko kultur taldeen jarduera bereziak finantzatzeko dirulaguntzak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkurak, Bermeoko Udaleko 2018-2021 dirulaguntzen plan estrategikoa eta oinarri orokorrak onestea erabagi dau.

Bigarrena: 2018ko ekainaren 25eko Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Bermeoko Udaleko 2018. urteko diru-laguntzak arautzeko Oinarri Bereziak, 2018ko uztailaren 17ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Hirugarrena: 2018ko uztailaren 17tik 27ra, epe barruan, dirulaguntza eskariak aurkeztu dabez 2018 urteko jarduera bereziak antolatu nahi dabezan Bermeoko kultur taldeek, oinarri berezietan aipatzen diran kontzeptuetarako.

Laugarrena: 2018ko abuztuaren 2ko Kultura eta Hezkuntza batzordeak, balorazio batzordea izanik, dirulaguntzen erispideen taula osotu dau, Oinarri Berezietan oinarrituta, honako hau izanik:

- **Minbiziaren aurkako elkartea: 56 puntu**

  Gabonetako mahai apaingarrien lehiaketea, 2018ko abenduan

- **Erroxape emakumeen elkartea: 74 puntu**

  Emakumearen eguna, 2018ko martxoaren 8an

- **Asociación Sociocultural Bilbosalsa: 28 puntu**

  Dantzaldi jaiak eta jokoak adin guztietarako, 2018ko abuztuaren 12an

- **Alkartasuna Dantza taldea: 48 puntu**

  Ume eta gaztetxoen III. alkartrukea, 2018ko apirilaren 28an

- **Alkartasuna Dantza Taldea: 75 puntu**

  XXXII. Nazioarteko Folklore Jaialdia, 2018ko abuztuaren 10etik 13ra

- **Barrueta Arte Elkartea: 63 puntu**

  “Azalien” proiektua, 2018ko urriaren 27tik 29ra

- **Alde Zaharra Bizirik elkartea: 40 puntu**

  Paella erraldoia, putxera txapelketa, 2018ko otsailean eta apirilean

- **Spookypheria Productions: 50 puntu**

  Halloween Metal Fest, 2018ko azaroaren 10ean

- **Spookypheria Productions: 33 puntu**

  Vermeio Folk Metal Fest, 2018ko urriaren 20an

- **Kankinkabara txistu taldea: 39 puntu**

  Busturialdeko I. Txistu eguna, 2018ko apirilaren 28an

- **Asoc. Cofradía de las procesiones de la Santa Vera Cruz: 75 puntu**

  Aste Santuko prozesinoak, 2018ko martxoaren 29an

- **Euskeraz Berbetan taldea: 47 puntu**

  Euskera eguneko ekitaldia, 2018ko abenduaren 3an

Bosgarrena: Idazkaritzako teknikariak txosten juridikoa egin dau 2018ko urriaren 8an.

Seigarrena: Kontuhartzaileak ikuskatze mugatuaren txostena egin dau 2018ko urriaren 9an.

Zazpigarrena: 2018ko urriaren 3an Kulturako teknikariak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: 2018ko abuztuaren 9ko Kultura eta Hezkuntza batzordeak, balorazio batzordea izanik, lortutako puntuak ikusita eta Bermeoko kultur taldeen jarduera bereziak finantzatzeko dirulaguntzen baldintza zehatzen fitxetan oinarrituta, dirulaguntza kopuruak proposatu dau.

Bigarrena: Gastuak, beharrezko atxekipena dauka (RC 2018/340)

Hirugarrena: eskatzaileek, Kultura eta Hezkuntza arloko 2018ko dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak ezagutzen eta onartzen dabezala aitortu dabe.

Laugarrena: Asociación Sociocultural Bilbosalsaren ekitaldiak 28 puntu lortu dauz eta dirulaguntza lortzeko gitxieneko puntuak, 30 puntu dira. Beraz, ez jagoko dirulaguntzarik.

Bosgarrena: Alde Zaharra bizirik elkartearen aurrekontuan paellaren gastua kendu egin da, ez dalako onartzen oinarrietan.

Seigarrena: Spookypheria Productions elkartearen eskaerak, ekitaldi birako, gitxitu egin dira, kontzertuak diralako eta diru-sarrerak handiagoak izaten diralako. Beraz, Halloween Festival-erako eskaera 1.800 €-tan finkatzen da eta Vermeio festival-erako 1.000 €-tan.

Zazpigarrena: Eskatzaileek, identifikazino fiskaleko kodea daukie eta egunean dagoz betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan. Eta, abuztuaren 10eko datagaz ez daukie tokiko zerga zorrik.

Zortzigarrena: Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra.

Bederatzigarrena: Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamendua onetsi ebana.

Hamargarrena: Onartzeko ahalmena alkateari jagoko, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.f) artikuluaren arabera, baina 2018ko

martxoaren 5eko 244 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazinoen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: Aurrekontuko 00400-33410-481.01.29 partida ekonomikoan 12.250 € zorduntzea zerrendatzen diran dirulaguntzak eta ordainketa honako era honetan egitea: programa osoa burutu baino lehen, %80a, eta ekintza justifikatzen danean %20a.

- **Minbiziaren aurkako elkartea: 143,00 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 114,40 € eta %20a (AD): 28,60 €

- **Erroxape emakumeen elkartea: 674,19 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 539,35 € eta %20a (AD): 134,84 €

- **Alkartasuna Dantza Taldea (alkartrukea): 526,53 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 421,22 € eta %20a (AD): 105,31 €

- **Alkartasuna Dantza Taldea (Folklore jaialdia): 5.390,74 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 4.312,59 € eta %20a (AD): 1.078,15 €

- **Barrueta Arte Elkartea: 1.243,89 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 995,11 € eta %20a (AD): 248,78 €

- **Alde Zaharra bizirik elkartea: 481,14 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 384,91 € eta %20a (AD): 96,23 €

- **Spookypheria Productions elkartea (Halloween festival): 1.764,25 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 1.411,40 € eta %20a (AD): 352,85 €

- **Spookypheria Productions elkartea (Vermeio festival): 980,13 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 784,10 € eta %20a (AD): 196,03 €

- **Kankinkabara Txistu taldea: 149,96 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 119,97 € eta %20a (AD): 29,99 €

- **Santa Vera Cruz Kofradia: 739,02 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 591,22 € eta %20a (AD): 147,80 €

- **Euskeraz Berbetan elkartea: 157,15 €**

  Ordainketea: %80a (ADO): 125,72 € eta %20a (AD): 31,43 €

BIGARRENA: Euskerearen ordenantzeak xedatzen dauzan kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko baldintzak bete behar dauz diru-laguntzearen jasotzaileak.

HIRUGARRENA: Erabagia interesdunei, Kontabilidadeari eta Diruzaintzari jakinarazotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkureari erabagiaren barri emotea.

8. - ALKATETZA DEKRETUEN BARRI EMOTEA

Alkatetzearen dreketuen berri emon da, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra jakitun geratu daiten.

9. - ESKARI ETA ITAUNAK

Ez dago.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat emon dau batzarra goiburukoan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidautakoa eta erabagitakoa jasota geratu daiten, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dodanak, horren fede emoten dot, lehendakariaren oneretxiagaz.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazinoko .....(e)tik.....(e)ra arteko zenbakidun papelean jaso da.

Orri oinean sinatzailea eta data